

# 4-DIRU-ITURRIAK

Irabazi iturriak aztertu beharra dago. Horretarako **kobroak** eta **prezioak** finkatu behar ditugu. Bestetik, **ordainketak nork** eta **nola** egingo dituen zehaztu behar da, eta azkenik, hausnartzea ea **bezeroak prest** egongo den proposatzen ditugun prezioak ordaintzeko.

## KOBROAK



**Kamisetak: 15€**

**Banakako kobroak**

Dirua produktuen salmenta edo zerbitzu puntualetatik jasoko ditugu. Adibidez, guk jasotako edozein produktu saltzerakoan, dirua jasoko dugu produktu horren eskubideak saltzeagatik.



**Prakak: 20€**

## ZER IRABAZI ITURRIEN ARABERA IZANGO DIRA KOBROAK?



**Publizitatea**

S.D Begoña futbol taldea bebestuko dugu, eta horren truke dirua ordaindu beharko dugu. Halere, alde batetik, gure enpresa eta produktuak ezagutaraziko ditugu eta bestetik, gurekin bat datorren jendea, eta ondorioz, bezero posibleak, lortuko ditugu.



**Zorroak: 20€**

**Aktiboen salmenta**

Gure bezeroak, gure hornitzaileen (produktuak ematen diguten pertsonak) menpe egongo dira. Ondorioz, zenbat eta produktu gutxiago jaso, orduan eta bezero gutxiago edukiko ditugu, ez baitugu izango bezeroen beharrak asetzeko ondasun nahikorik. Gure enpresak aktibo horietatik dirua jasoko du, produktuak saldu heinean.

## PREZIOEN FINKAPENA



### Prezio finkoak

Gure prezioa ez da printzipoz merkatuaren arabera aldatuko; izan ere, guk jasotzen ditugun produktuak salduko diren arte denbora pasako da. Ondorioz, guk finkatuko ditugu. Hala ere, inflazioaren ondorioz edo merkatuan izugarritzko aldaketak egonez gero, prezioa alda genezake.

### Ezaugarrien araberako prezioa

Prezioa produktuaren kalitatea eta kopuruaren araberakoa izango da.




### Bolumenen araberako prezioa

Behar izanez gero, eta produkturen bat kantitate handian izanda, promozioak egingo ditugu, edo hauen prezioa jaitsiko dugu, xedea ondasun horiek saltzea izanik.



## ZER ORDAINKETA MOTA ONARTUKO DITUGU?

Gure bezeroek produktuak erostean, **eskuz** edo **txartelez** ordainduko dute. Hala ere, **Bizum** edo horrelakoak ere onartuko dira.



Nabarmentzekoa da, guk bonoen bitartez ordainduko dugula arropa uzten digun jendeari, baina guk ez dugu horrelako ordainketarik onartuko.